



Siderurgia-sektorea AEBn

2024ko iraila



1. Laburpena eta ondorioak

Estatu Batuetako ekonomiako sektorerik sentikorrenetako bat da siderurgia-sektorea. Azken urteetan, Txinaren gisako herrialdeetan ekoizpena merkeagoa zenez, gainprodukzioa gertatu da mundu mailan, eta Estatu Batuetan ugaritu egin dira altzairuaren inportazioak. **Trump presidenteak muga-zergekin lotutako neurriak hartu zituen.** Hala, 232. sekzioa onartu zuen eta muga-zerga handiagoak ezarri zituen sektorean. Kaltetutako hainbat herrialdek egindako erreklamazioen ostean, muga-zergak berriro negoziatu ziren eta herrialde batzuek kuotak jaitea lortu zuten, hala nola Kanadak, Japoniak edo Europar Batasunak. **Biden presidentearekin indarrean jarraitu du 232. sekzioak eta, gainera, "Infrastructure, Investment and Jobs Act" eta "Inflation Reduction Act" onartu dira, biak ere tokiko ekoizpeneko klausulak dituzten dirulaguntzekin.**

Estatu Batuetako merkatu siderurgikoan **bat-egite eta erosketa handiak** ari dira gertatzen. Cleveland Cliffs merkatuko erraldoi gisa sartu zen 2020an, ArcelorMittal eta AK Steelen aktiboak erosi ondoren. Bestetik, Nippon Steel Corporationek US Steel erosi zuela iragarri zuen 2023ko abenduan. Horrek lehia eragin lezake Nucorrek, datozen urteetan herrialdeko altzairu-ekoizlerik handiena izateko.

Honako hauek dira industriari epe laburrean gehien eragingo dioten faktoreak:

- **Altzairuaren prezioa:** altzairuaren prezioa oso ziklikoa da. Barneko tarifa-politikei eta eskariari lotuta egoteaz gain, modu intrintsekoan lotuta dago lehengaien (adibidez, burdin mea, txatarra, ikatza eta koke metalurgikoa) intsumoen prezioari. Historikoki, altzairuaren prezioa Europan baino apur bat altuagoa izan da Estatu Batuetan. Zehazki, 2021ean asko hazi zen altzairuaren prezioa AEBn, txatarraren eskuragarritasuna murriztu zelako. Izan ere, pandemian zehar behera egin zen industria-jarduerak, eta txatarraren erabilera masiboa oso garrantzitsua da AEBko altzairuaren ekoizpenerako. Gainera, enpresa industrial batzuek lehengaien izakinak neurritz gain eskuratzea erabaki zuten pandemiaren lehen etapetan, etorkizunean hornidura-arazoak izatea saihesteko. Eskasia eta prezio altuak eragin zituen horrek.
- **Eraikuntza berria:** Estatu Batuetan eraikuntzako industria da altzairuaren eta burdinaren industriaren merkaturik handiena (% 44), eta eraikuntzako industriaren hazkundeak zuzenean mesede egiten die sektoreko diru-sarrerei. Zehazki, eraikuntza-sektoreko bizitegi-erabilerakoa ez den segmentuko jarduera mailaren arabera izaten da altzairuaren eskaria, neurri handi batean.
- **Ibilgailu berrien salmenta:** Automobilgintza-sektorea da Estatu Batuetako industria siderurgikoaren bigarren merkaturik handiena (% 28), hortaz, haren hazkundeak ere zuzenean mesede egiten dio sektoreari. Automobilgintzak eta autoen fabrikazioak ez dute hazkunde nabarmenik izan azken hamarkadan AEBn (*IBISWorld 33611a* txostenaren arabera), baina 2020a bereziki urte txarra izan zen sektorearentzat. 2022an, hasiera batean, autoen salmentak hazi egingo zirela aurreikusi zen, baina posible da behera egitea, baldin eta baldintza ekonomikoen okertzeak, inflazioaren igoerak, gasolinaren prezio altuek eta interes-tasen hazkundeak kontsumitzaileen eskaria aldatzen badute. 2023ko irailean greba hasi zuen automobilgintza-sektoreko langileen sindikatuak, United Auto Workers (UAW) izenekoak, automobilen hiru fabrikatzaile handiren aurka. Greba horrek mehatxu bat izaten jarraitzen du ekoizpen nazionalarentzat, eta dagoeneko [U.S. Steelen Granite City Workseko instalazioetan dagoen labe garaiaren itxiera eragin du.](#)
- **AEBko ekoizpen industrialaren indarra:** Beste sektore nazional batzuen (meatzaritza, manufaktura, elektrizitatea eta gasa) altzairuaren eskariak osatzen du industriaren gainerako merkaturia eta, orokorrean, sektore horiek hazteak altzairuaren eta burdinaren industria haztea eragingo luke. Sektore horien ekoizpena aztertzeko erreferentziazko tresna bat izan daiteke AEBko [ekoizpen industrialaren indizea](#). Inbertsio-legeak onartzen eta aplikatzen direnean, AEBko altzairuaren kontsumoa sustatzea espero da. Izan ere, lege horien ondorioz, administrazio publikoak dirulaguntza handiak emango dizkio altzairu nazionalari.



- **Estatu Batuetako dolarraren indarra:** industriaren esportazioak murriztu egin dira azken hamarkadan, baina enpresa batzuk esportazioen mende egon dira diru-sarrerak handitzeko; bereziki, altzairuaren nazioarteko eskaria handitzen doan heinean. AEBko dolarraren balioa handitzen bada, esportazioak garestiagoak dira atzerriko bezeroentzat eta altzairuaren inportazioek gora egiten dute; aldiz, dolarraren balioa jaitsiz gero, alderantziz gertatzen da. AEBko [merkataritza-indize haztatua](#) erabil daiteke dolarraren indarra neurtzeko.

Euskadiko enpresentzako **aukera** posibleen artean, bi joera nagusi nabarmentzen dira: **balio erantsi altuko altzairuaren ekoizpena eta eragiketa industrialen etengabeko deskarbonizazioa.**

Balio erantsi altuko altzairu moten ekoizpenari dagokionez, altzairuaren sektore pribatuak denbora darama instalazio berrietan inbertitzen, automobilgintza- eta eraikuntza-sektoreko bezeroen eskariei erantzuteko; izan ere, altzairu elektriko gehiago eta hirugarren belaunaldiko erresistentzia handiko altzairuak bilatzen dituzte horiek. Altzairu horiek ekoizteko ekipamendu berriak behar dira, altzairu mota gogor eta harikorretako prozesu termo-mekanikoak zehatz-mehatz kontrolatu ahal izateko; askotan, hotzean prozesatu, formatu eta estanpatu daitezke horiek. Bidenen politika industrialek ibilgailu elektrikoek ekoizpena sustatzen dute, sare elektriko nazionala berreraikitzen dute eta energia berriztagarrien erabilera sustatzen dute. Politika horien ondorioz, abantaila lehiakor handia bilakatu da balio erantsi handiko altzairu horiek eskala handian ekoizteko gaitasuna.

Sektore pribatuko beste joera handia, hau da, industriaren deskarbonizazioa eta altzairu berdearen (*Green Steel*) ekoizpena, lotuta dago balio erantsi altuko altzairu horien garapenarekin. Izan ere, enpresa siderurgikoek gero eta eskakizun handiagoak jasotzen dituzte bezero eta inbertitzaileen aldetik, hornidura-kateetan zehar berotegi efektuko gasen isurpenak murrizteko. Lau enpresa nazional nagusiek, Nucor, Cleveland-Cliffs, Steel Dynamics eta US Steelek, beren deskarbonizazio-helburu propioak iragarri dituzte, eta altzairu berdearen ekoizpenarekin lotutako proiektu berriak garatzen jarraitzen dute.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



BasqueTrade
& Investment

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia



Urkixo zumarkalea, 36, 5. solairua.
Bizkaia Plaza eraikina 48011 Bilbo
info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60